XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1887

43/2024 DEKRETUA, apirilaren 16koa, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia onartzen duena. Erabaki horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak.

Irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak onartutako Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta erabaki horretan eskatzen diren formalizazio-izapideak betetze aldera, dekretu honen xedea da, alde batetik, onartzea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 11n hartutako erabakia, Estatuko Administrazioak bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa, eta, bestetik, eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak atxikitzea.

Horren ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 16an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren 2024ko martxoaren 11ko erabakia, bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) eskualdatzeari buruzkoa, apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta Errege Dekretu hori osorik Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikita geratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA, APIRILAREN 16KO 43/2024 DEKRETUARENA

368/2024 ERREGE DEKRETUA, APIRILAREN 9KOA, BIDAIARIAK ALDIRIETAKO TRENBIDEZ GARRAIATZEKO ZERBITZUEI DAGOZKIEN ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN EGINKIZUNAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEARI BURUZKOA

Konstituzioaren 149.1.21 artikuluan ezarrita dago Estatuak duela eskumen esklusiboa autonomia-erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen diren trenbideen eta lurreko garraioen gainean.

Horrez gain, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du trenbideen eta lurreko garraioen arloetan. Bestalde, 12.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, orobat, jatorria eta helmuga Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan dituen salgai- zein bidaiari-garraioaren antolamenduari buruz Estatuak duen legeria betearaztea.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 2. artikuluan hainbat helburu daude bilduta, hala nola Estatuan trenbideko garraio-sistema komun bat bermatzea eta trenbideko garraioaren politika europar erkidearen garapena erraztea, trenbide-sistemen interkonexio eta elkarreragingarritasuna eta garraio-zerbitzuen intermodalitatea lagunduz.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuaren bidez, trenbideak ezartzeko, antolatzeko, ustiatzeko eta ikuskatzeko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Nagusiari eskualdatu zitzaizkion.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankor horretan jasota dagoen batzorde mistoak erabaki zuen, 2024ko martxoaren 11ko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea gai honi loturiko Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak: bidaiariak aldirietako trenbidez garraiatzeko zerbitzuak. Beraz, erabaki hori Gobernuari bidali zaio, errege-dekretu baten bidez onetsi dezan.

Ondorioz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen dena betez, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta, eta ministroen kontseiluaren 2024ko apirilaren 9ko bileran aztertuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Batzorde Mistoaren erabakia onartzea.

Onartzea Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean adierazitako batzorde mistoak 2024ko martxoaren 11ko osoko bilkuran hartutako erabakia, bidaiariak aldirietako trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuaren Administrazioaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa. Erabaki hori errege-dekretu honen eranskinean dago.

2. artikulua.– Eginkizunak eskualdatzea.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bidaiariak aldirietako trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak, batzorde mistoak hartu duen erabakian ezarri bezala eta erabakian bertan zehaztutako termino eta baldintzetan.

3. artikulua.– Eginkizunak eskualdatzearen eraginkortasuna.

Batzorde mistoaren erabakian adierazten den egunetik aurrera izango du eragina eginkizunen eskualdatzeak.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA, APIRILAREN 9KO 368/2024 ERREGE-DEKRETUARENA

Jorge García Carreño eta Ugaitz Zabala Gómez jaunek, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoko idazkariak diren aldetik, honako hau

ZIURTATZEN DUTE:

Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak, 2024ko martxoaren 11n egindako osoko bilkuran, erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea bidaiarien aldiriko trenbide-garraioko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak, ondoren adierazten den moduan:

A) Eskualdatzea babesten duten Konstituzioko, Estatutuko eta legezko arauak.

Konstituzioaren 149.1.21 artikuluan ezarrita dago Estatuak duela eskumen esklusiboa autonomia-erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen diren trenbideen eta lurreko garraioen gainean.

Horrez gain, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du trenbideen eta lurreko garraioen arloan. Bestalde, 12.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, orobat, jatorria eta helmuga Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan dituen salgai- zein bidaiari-garraioaren antolamenduari buruz Estatuak duen legeria betearaztea.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 2. artikuluan hainbat helburu daude bilduta, hala nola Estatuan trenbideko garraio-sistema komun bat bermatzea eta trenbideko garraioaren politika europar erkidearen garapena erraztea, trenbide-sistemen interkonexio eta elkarreragingarritasuna eta garraio-zerbitzuen intermodalitatea lagunduz.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuaren bidez, trenbideak ezartzeko, antolatzeko, ustiatzeko eta ikuskatzeko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Nagusiari eskualdatu zitzaizkion.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Arau-aurreikuspen horiek oinarri hartuta, bidezkoa da bidaiarien aldiriko trenbide-garraioko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea.

B) Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen eginkizunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Estatuko Administrazioaren eginkizunak, zabalera iberikoa eta zabalera metrikoa duten aldirietako zerbitzuei dagokienez. Zerbitzu horiek erabaki honen 1. zerrendan eta 1. erabaki osagarrian jasota daude, eta bertan zerbitzu horiek zehazten dira eta dagozkien lankidetza-mekanismoak ezartzen dira.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen eginkizunen artean sartzen dira zerbitzu horiek arautzea, planifikatzea, kudeatzea, koordinatzea, eta ikuskatzea, bai eta horien gaineko tarifa-ahalmena ere; bereziki, honako eginkizun hauek:

a) Zerbitzua arautzea eta antolatzea, haren izaera juridikoa eta kudeatzeko modua zehaztea barne, eta, hala badagokio, enpresa operadoreei ezartzen zaizkien zerbitzu publikoko betebeharrengatiko konpentsazioen araubidea finkatzea.

b) Esleituta dituzten zerbitzuak ematean trenbide-enpresek bete behar dituzten kalitate-mailak zehaztea.

c) Trenbide-garraioko enpresek proposatzen dituzten eta zerbitzuaren erabiltzaileei eragiten dieten garraio-kontratu motak aldez aurretik onartzea.

d) Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zehaztea, zerbitzua kontratatzeko eta erabiltzeko baldintzak baimentzea, erreklamazio-prozedurak ezartzea eta erreklamazio-sistemak arautzea eta ikuskatzea.

e) Trenbide-enpresetako langileek esleitzen zaizkien ikuskapen-eginkizunak betetzeko dituzten ahalmenak zehaztea.

f) Zerbitzuaren plangintza egitea, trenbide-eskaintzari eta kudeaketari dagokienez.

g) Enpresa operadoreekin zerbitzu publikoko kontratuak formalizatzea, kontratu horietan aurreikusitako betebeharren jarraipena egitea eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea.

h) Trenbideko edozein garraio-enpresatan gatazka kolektiboa gertatuz gero ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak finkatzea.

i) Zerbitzuari buruzko araudia hausteagatiko zehapen-araubidea aplikatzea, eta garraio-tituluak behar bezala erabiltzen direla ziurtatzeko eta iruzurra saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

j) Trenbide-zerbitzuak koordinatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko gainerako garraio-zerbitzuekin eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuenekin, zerbitzu horien intermodalitateari datxezkion funtzioak betetzea eta beharrezkotzat jotzen diren lankidetza-neurriak bultzatzea.

k) Trenbide-zerbitzua ikuskatzea, erabiltzen diren bitartekoak barne, zerbitzua emateko adostutako baldintzetara egokitzen dela egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Estatuko Administrazioak eragiketa-segurtasunaren arloan dituen gainbegiratze- eta ikuskatze-eginkizunak.

l) Zerbitzua kontratatzeko eta erabiltzeko baldintzak betetzen direla eta erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren araubidea errespetatzen dela egiaztatzeko jarduketak.

m) Zerbitzuari aplikatu beharreko tarifak eta prezioak zehaztea, tarifa-sistema integratuei atxikitzeko formulak antolatzea eta erabiltzaile-kolektibo jakin batzuentzat ezarritako hobariak aplikatzea.

3.– Erabaki honek ez du aurreikusten Euskal Autonomia Erkidegoak Europako zabalera estandarreko sareko zerbitzuak bere gain hartzea, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean zerbitzu horiek bere gain hartzeari uko egiten dionik.

C) Estatuaren Administrazioak beretzat gordetako eginkizunak.

1.– Estatuko Administrazioak jarraituko du betetzen Europako zabalera estandarreko sareko etorkizuneko zerbitzu guztien gaineko eginkizunak, bai eta eskualdatu behar ez diren zerbitzu publikoko betebehartzat deklaratutako zerbitzuen gainekoak ere, erantsitako 1. zerrendan eta erabaki honen 1. erabaki osagarrian jasotako baldintzen eta aurreikuspenen arabera.

2.– Era berean, Estatuko Administrazioak beretzat gordetzen ditu berari dagozkion eskumenak baliatzeari buruzko erregulazioa eta eginkizun betearazleak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Interes Orokorreko Trenbide Sarearen azpiegiturari eragiten dioten eginkizun guztiak.

b) Trenbide-enpresen lizentziak ematea.

c) Interes Orokorreko Trenbide Sareari eta sare horretatik igarotzen diren zerbitzuei dagokienez, segurtasun operazionalaren eta elkarreragingarritasunaren arloan esleitutako eginkizun guztiak, azpiegitura-administratzaileen, trenbide-enpresen eta trenbide-sektoreko gainerako eragileen eragiketen segurtasuna gainbegiratzea barne.

d) Trenbideko langileei, haien prestakuntzari eta gaikuntza-tituluen jaulkipenari buruzkoak.

e) Istripuak ikertzea.

f) Interes Orokorreko Trenbide Sarearen gaineko trenbideko garraioari aplikatu beharreko tasei eta sare horretara sartzeko tarifak ezartzeko araubideari buruzkoak, hargatik eragotzi gabe trenbide-azpiegituraren administratzaileek kanonak zehazteko dituzten eskumenak.

D) Lankidetzako formula instituzionalak.

1.– Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren organo eskudunek izan behar duten koordinazioa ziurtatzeko, bi administrazioek lankidetza-hitzarmenak egin ditzakete, trenbide-zerbitzuak eskaintzeko behar diren lankidetza eta baterako jarduketa erraztuko dutenak egoki diren arloetan.

2.– Trenbide-azpiegituraren administrazioaren eta trenbide-zerbitzuen prestazioaren arteko beharrezko koordinazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Trenbide Azpiegituren Administratzailearen arteko akordio baten bidez gauzatuko da, dagokion trenbide-azpiegituraren gaitasuna erabiltzeko. Koordinazio horren esparruan, ildoen programazioari helduko zaio, kontuan hartuta eskualdatzen diren funtzioak gauzatzen dituzten zerbitzuek arinak eta azkarrak izan behar dutela, funtsezkoak baitira mugikortasuna eta lurraldearen egituraketa bermatzeko.

3.– D).1 apartatuan ezarritako helburuetarako, Lankidetza eta Jarraipen Batzorde bat sortzen da, eginkizun hauek izango dituena: trenbide-zerbitzuak ematean lankidetza eta elkarlana sustatzea, informazioa bidaltzea, dagozkien eginkizunak betetzean jarraipena egitea, eta hitzarmen hau interpretatzean, gauzatzean eta betetzean sor daitezkeen arazoei aurre egitea.

Horrez gain, lankidetza-mekanismo horrek adostasunez aztertuko ditu egungo trenbide-azpiegitura eta haren plangintza ekonomikoa eta egikaritze-plangintza hobetzeko beharrak, lurraldearen beharretara egokituko den kalitatezko azpiegitura bat lortzeko, dauden aurrekontu-baliabideen barruan.

E) Beste xedapen batzuk.

Jarraian aipatzen diren trenbide-lineak eskualdatzea erabaki da, Bilboko porturako trenbide-sarbide berri bat, Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea deiturikoa, eraiki eta martxan jartzearen mende, eta, ondoren, linea horiek Interes Orokorreko Trenbide Saretik kanpo uztearen mende, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legean ezarritako izapideak egin ondoren, erabaki honen 3. akordio osagarrian jasotako baldintzetan:

• 01-720 Bilbo Abando Indalecio Prieto-Santurtzi.

• 01-722 Desertu Barakaldo-Muskiz.

• 01-724 Bilbo Salgaiak - Santurtzi.

Eskualdaketa berretsi egingo da Bilboko Hegoaldeko Trenbide-saihesbidea amaitu eta martxan jartzen denean; bitartean, trenbide-linea horien entrega eta ustiapena atzeratu egingo da baldintza hori bete arte.

F) Eskualdatzen diren eginkizunen finantza-kargen balorazioa.

1.– Eskualdatzeari lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa erantsitako 2. zerrendan jasotzen da.

2.– Interes Orokorreko Trenbide Sarearen gainean Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik oso-osorik igarotzen diren trenbide-zerbitzuak, Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen eginkizunei dagozkienak, Renfe Viajeros, SME, SAk egiten ditu, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Estatuko merkataritza-sozietate honen artean sinatutako zerbitzu publikoko kontratuaren esparruan, zeina indarrean baitago erabaki hau hartu den egunean.

3.– Eskualdatuko diren kontratu horretako zerbitzuei dagokien finantzaketa erabaki honen 2. erabaki osagarrian jasotako prozeduraren eta baldintzen arabera zehaztuko da.

G) Dokumentazioa eta espedienteak entregatzea.

Eskualdatzen diren eginkizunen dokumentazioa eta espedienteak hiru hilabeteko epean entregatu behar dira, erabaki hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

H) Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

1.– Erabaki honen xede den eginkizun-eskualdatzeak eraginkortasuna izango du Euskal Autonomia Erkidegoaren subrogazio-akordioa indarrean jartzen denetik, Estatuko Administrazioak Renfe Viajeros, SME, SArekin gaur egun duen zerbitzu publikoko kontratuaren kontratu-posizio berean. Subrogazio-akordio hori sei hilabeteko epean sinatu beharko da, erabaki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

2.– Erabaki honen 2. erabaki osagarrian, Euskal Autonomia Erkidegoaren subrogazioa arautuko da, Estatuko Administrazioaren kontratu-posizio juridikoan, aipatutako zerbitzu publikoko kontratuari dagokionez.

3.– Nolanahi ere, erabaki honen 2. erabaki osagarrian aipatzen den subrogazio-akordioan, kontratuaren edukiaren berezitasuna sartuko da eskualdatzeak eragindako zerbitzuetarako.

Eta jasota gera dadin, ziurtagiri hau ematen dugu Madrilen eta Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 11n. Batzorde Mistoaren idazkariak: Jorge García Carreño jauna eta Ugaitz Zabala Gómez jauna.

1. ZERRENDA

Zabalera iberikoko eta zabalera metrikoko aldiriko zerbitzuak, eskualdatutako funtzioak dituztenak

a) Bilboko zabalera iberikoko aldirietako nukleoa:

– C-1 Bilbo Abando-Barakaldo-Santurtzi.

– C-2 Bilbo Abando-Barakaldo-Muskiz.

– C-3 Bilbo Abando-Llodio-Urduña.

b) Donostiako zabalera iberikoko aldirietako nukleoa:

– C-1 Irun-Donostia-Tolosa-Brinkola.

c) Bilboko zabalera metrikoko aldirietako nukleoa:

– C4f linea, Bilbo-Balmaseda.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Karrantza eta Bilbao arteko, Araia - Vitoria-Gasteiz eta Vitoria-Gasteiz arteko eta Vitoria-Gasteiz eta Manzanos – Erribera Beitia arteko trenbide-zerbitzuei dagokienez akordio honen B).2 atalean ezarritako eginkizunak, etorkizuneko aldirietako zerbitzuen zati gisa.

2. ZERRENDA

Estatu-mailako urteko kostu osoa

(Euroak, 2023)

17. atala: Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioa

Aurrekontu-aplikazioa	Kapitulua	Zenbatekoa (euroak, milakoetan)
17.01.451N	1	53
17.01.451N	2	15
17.01.451N	6	7
17.39.441M	4	886.417
17.39.441M	7	600.000
17.39.453M	1	169
17.39.453M	2	78
17.39.453M	6	66
Guztira		1.486.805

Kupoari dagokion murrizketa Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuko Administrazioak Renfe Viajeros, SME, SArekin duen zerbitzu publikoko kontratuaren posizio juridikoan subrogatzeko akordioa indarrean jartzen den dataren hurrengo ordainketa-epean egingo da.